Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Gandhi baketsua
Gorka Calzada
TXERTOA
142 orrialde
9,95 euro

Gandhi-ren biografia berezia

Bederatzi-hamabi urte inguruko neska-mutikoei zuzendutako *Nor da?* bilduma plazaratu berri du Txertoa argitaletxeak. Itzal handiko pertsonen biografiak jaso dituzte, hizkera zuzen eta garbian, umore eta ironia ukituekin. Gandhi, Leonardo da Vinci, Marie Curie edo Einsteinen biografiak badira ere, egiazko pertsonak agertu nahi dizkiete egungo gaztetxoei, eleberri edo ipuin bat bezala irakurtzeko moduko narrazioak eskainiz. Testuen osagarri gisa, *A Cuatro Manos Estudio* argentinarren irudiez gain, biografiekin lotutako ariketa bereziak azaltzen dira. Esate baterako, Gorka Calzadak idatzi eta Nerea Galarzak euskaratu duen *Gandhi baketsua* liburuan, Gandhiren errezetak. ❙

Morfología del verbo auxiliar vasco. (Compendio / índice...)
Pedro de Yrizar
EUSKALTZAINDIA
948 orrialde / 12 euro

Pedro de Yrizarrek euskal aditzaz egindako lanaren emaitza

Urte asko hartu zizkion Pedro de Yrizarri euskal aditzaren morfologia aztertzeak. Euskalkiz euskalki aztertu zuen, eta orain Euskaltzaindiak plazaratutako *Morfología del verbo auxiliar vasco (compendio/índice/index)* da ahalegin horren *finis coronat opus*. Liburuan aztergai dira euskalki bizkaitarrak (Markina, Gernika, Bermeo, Arratia, Orozko eta beste hainbat herritako aldaerak); gipuzkoarrak (Hernani, Tolosa, Azpeitia, Zegama); Nafarroa iparraldekoak (Lizaso, Bera, Huarte-Arakil, Etxarri-Aranatz) eta hegoaldekoak (Egües, Olaibar, Artze, Erro, Burgete, Gares); Lapurdikoak (Sara, Ainhoa edota Donibane Lohizune) eta Erronkarikoak (Bidankoze, Urzainki eta Uztarroze). ❙

Amonak oroimena galtzen duenean

Maya eta amona Eli
Patricia Schröder
IBAIZABAL
110 orrialde
9 euro

Erregaliz taldea lau neskak osatzen dute. Lagun minak dira, batzuetan haserretzen badira ere; edozein arriskuri aurre egiteko prest daude, beraietako bat egoera zailean baldin badago. Horixe egin beharko dute *Maya eta amona Eli* izeneko liburuan kontatzen den istorioan, Mayaren amonak alzheimerra duela jakiten dutenean. Hasiera batean Mayak ez daki bere gurasoek zergatik eraman nahi duten amona zaharren egoitza batera Oso independentea izan da beti amona, Milky bere txakurrarekin batera bizitzea gustuko du, eta ostegunetan Maya bazkaltzera joatearekin pozik da andrea. Orain berriz, etxez aldatu beharko du, eta gainera Milky txakurra ere kendu egingo diote. Zer egin dezake amonak? Erregaliz taldearen laguntza beharko du, duda gabe. ❙

Birziklatzearen onurak

Dumper bat kinka larrian
Alberto Burgos Cucó
EDICIONES BETA
80 orrialde
8 euro

Hamar urtetik gorako haurrentzat kontakizun aproposa da *Dumper bat kinka larrian*. Obretan gauzak kargatzeko eta edonora eramateko erabili ohi diren brozeldun traktoretxo horien moduko bati gertatutako istorioa kontatzen du. Erabat trauskila da Mikelen auzoko dumperra, sekulako zarata ateratzen du, kiratsa dario eta lokatza uzten du nonahi. Auzotarrek manifestazioak egin dituzte haren aurka eta Udalak txikitzelekura bidaltzeko erabakia hartu du. Inori ez zaio gustatzen dumper zaharra, hamaika urte inguruko mutil bati izan ezik, Mikel du izena eta maite du dumper hori. Bere lagunekin batera hormigoi gehiegi daukan hirian gelditzen zaien natura apurra kontserbatzen lagunduko du, dumper zaharra beraien maskota bihurturik. Nola egin hori, ordea? ❙

Singapurreko gutunak
Marikita Tambourin
MAIATZ
154 orrialde
15 euro

Marikita Tambourinen azken nobela

Hogeita hiru urteko neskato baionar batek bizi duen amodioa da Marikita Tambourinen *Singapurreko gutunak* nobelaren oinarria. Eleberriaren korapiloa, hala ere, beste nonbait dago: hirurogeita bat urteko emakumea ari baita gaztaroan jasotako amodio gutun sukartsu haiek irakurtzen. Singapurreko armadan lan egiten duen gizona da urruneko maitalea, herri hartako demokrazian erabat sinesten duen gizona hain zuzen ere. Nolanahi, berrogei urte inguru pasa eta gero, gazte horren asmoak bestelakoak izan zitezkeela pentsatzeko adina argibide aurkituko du emakumeak. Bereziki, Singapurreko armadak gizarajo hari egin ziona jakin eta gero. ■

Gauari zion beldurra galdu zuen neskatoa

Eider Rodriguezek idatzi du *Nikoleta eta gaua* eta Arrate Rodriguezek egin ditu kontakizunaren marrazkiak. Ipuin honetako protagonista Nikoleta Arrieta da, gauaren beldur zen umea. Gauero, ohera sartu orduko, goiza iristeko zain egoten zen, hainbeste maite zituen koloreak eta txoriak gauarekin beste nonbait joaten zirela konturatu zelako. Eta Nikoletak ez zuen txori-kanturik gabeko zerurik nahi. Baina Mika zahar batek esateko ziona entzun ondoren, neska ez da gehiago gauetan goibelduko. ■

Nikoleta eta gaua
Eider Rodriguez
ELKAR
32 orrialde / 6,10 euro

egileari galdezka

RAFA EGIGUREN

«Kuba ispilua da, eta ispilu horretan euskaldun bat ageri da»

Kubaren ezaguera nahikoa behar da horrelako nobela bat idazteko.

Nik Kubara hiru joanaldi egin ditut: Txinatik bueltan –1980ko hamarkada hasieran– kanpotik ezagutu nuen; ondoren, lagun batekin joan nintzen, eta jada barrutik ezagutu nuen; eta gero, bidaia oso aberatsa egin nuen, Kubako kultur munduaren barrura sartzeko aukera eman ziguna. Txelo eta Joxe Mari Larretxearen bitartez antolatu zen ekintza kultural batera joan nintzenean izan zen hori. Han elkartu ginen Hertzainak, Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Argiñano, Zumeta... Eta orduan, bada, bidaia horietatik hartzen dituzu apunteak, eta gero horrek bere zera hartzen du.

Dena den, nobelako protagonista euskalduna da.

Bi nobela idatzi ditut: *Ilargia putzuan ageri*k paisaia erabat txinatarra du, eta *Chevrolet tropikala*, berriz, erabat Kuba eta Iruñea pixka bat da. Nire ustez, beti euskaldun baten barruari buruz ari naiz idazten. Berdin da non dagoen euskaltasuna, Euskal Herria; azken batean, nirean, Kuba ispilua da, eta ispilu horretan euskaldun bat ageri da.

Kubatarren filosofia ere agertzen duzu nobelan.

Saiatu naiz Kubako pertsonaiak estereotipoak izan ez daitezen, baina bai pertsonaia errekonozigarriak. Badago, esate baterako, *la mulatita guapa que quiere salsa pero también se aprovecha*; badago iraultza zentzu kritikoarekin aztertzen duena, Arsenio; badago egoeraz aprobetxatzen dena... Horiek denak daude, eta jantzi egin behar dira. Horretarako, nik han egon nintzenean jasotako hainbat gauza ditut, eta liburuetan irakurri ditudanak.

Rafa Egigurenek Kubaz egindako lan bihotzekoa

Xarma dario Rafa Egiguren idazle hernaniarrak Susa argitaletxearen bidez plazaratutako *Chevrolet tropikala* lanari. Euskal Herrian dauzkan arazo pertsonalei ihes egin nahian egun batean La Habanarako bidaiari ekingo dion euskalduna du protagonista, baina ez da nobelako pertsonaia bakarra: bidaian aurkituko dituen kubatarrek itzal handia dute kontakizunean. Iraultzaren irlan sei hilabete pasatzeko asmoz joana da Migel Salaberria Kubara, abioian alboan eseri zaion kubatar argiari aitortu dionez. Harekin egingo ditu tratuak, eta haren bitartez ezagutuko du Kubako jendea: antzerki ikastaro bat ematearekin batera ohean ere aukerako laguna dela erakutsiko dion neska; telefono dei bat duela-eta bere etxera igotzeko gonbita egingo dion emakumea; azken horren osaba iraultzailea... Chevrolet harrigarriaren jabea berriz, ez du berak aurkituko, hark aurkituko baitu bera. Iraultzaren kontraesanetan AEBen blokeoa jasaten ari den herriaren erretratu umoretsua da *Chevrolet tropikala*, Kubako iraultzak galtza motzetan harrapatu arren hango berri ugari duen Rafa Egigurenen lana. ■



Chevrolet tropikala
Rafa Egiguren
SUSA
218 orrialde
15 euro